

LAN BATZORDE IREKIAK			
TALDEA	ONGIZATE BATZORDEA		
IRAUPENA	ORDU 1	EGUNA	2019-11-19
GAIA	-	DEIALDIA	19:00
PARTE HARTZAILEAK			
Iñaki Etxezarreta	Endika Igarzabal	Arantxa Bidegain	Xabier Barriola
Iñaki Murua	Eli ELgarresta	Leire Urbieta	
ERABAKIAK			
GAIA	EKINTZAK	ARDURADUNA	NOIZKO
HAURTZAINDEGIA	<ul style="list-style-type: none"> Irekita dago bi hurrekin. 		
ZABORRAK	<ul style="list-style-type: none"> Urriaren 28an itxi zen errefusaren ontzia, astean behin irekiz. Jendeak txartela hartzeko hainbat aukera izan ditu, beraz ez dago aitzakiarik. Guztira 153 txartel banatu dira, eta organikoarentzako 114 hontzi (etxe kopurua 180 ingurukoa da, beraz, oraindik badaude hartu ez dutenak). Pixoihalentzat ontzi berezi bat jarri da, eta momentuz ondo ari da funtzionatzen. Sasietak zabor ontzi kanpoan utzitako poltsak errebisatzeko eskumena dauka. Baita ontzi barrukoak ere, gaizki berezita dagoela ikusten badu. Zaborretatik ateratako informazioarekin norena den jakiten du. Bereizketa eta zabor guneen erabilera egokia ez den kasuetan, udalak isunak jartzeko eskumena dauka. Dagoeneko egon dira hainbat abisu, eta isuna 500€ artekoa izan liteke. 		
ADINEKOENTZAT TOPAGUNEA	<ul style="list-style-type: none"> Laar enpresarekin kontratua eten da ez zuelako zerbitzurik ematen. Pertsona bat kontratatu da udaletik, eta askoz hobeto funtzionatzen du orain. 7-8 laguneko taldea mantentzen da. 		
GOI TENTSIOKO LINEA	<ul style="list-style-type: none"> Guztira 3 proiektu daude: Gueñes-Itsaso, Dicastillo-Itsaso eta lehendik dagoen linea baten repotenziazioa, Itsaso-Orkoi. Gueñes-Itsaso: martxan dago ia, zutabeen oinarriak jartzen ari dira dagoeneko. Herriko errepideen egoeraren inbentario bat egin da, obren ondoren lehen bezala edota hobeto uzteko. 3 bide erabiliko dituzte: Ardantzakoa, Azkartzakoa eta Arretxemendira doana. 		
KURSILLOAK	<ul style="list-style-type: none"> Etxeetako energia aurrezteko kursilo bat antolatu da eta 6 laguneko eman dute izena (5 da gutxienekoa). Udaberrian izango da. 		

- | | | | |
|--|--|--|--|
| | <ul style="list-style-type: none">• Bigarren kusrilo bat antolatuko da (udaberrian izango da), etxeen eraberritzea energia kontsumoa jaitsiz egiteko pautak lantzen dituena. Izen ematea zabalik dago. | | |
|--|--|--|--|

HURRENGO BILERA: urtarrilak 21, 19:00tan